

**URDIAINGO UDALA**



**POLÍGONOARI BURUZ**

# **INDUSTRIALDEAREN INGURUAN URDIAINGO UDALAK EMANDAKO PAUSOAK, HASIERATIK GAUR ARTE**

Idazki honetan Urdiain-Altsasuko industrialdearen inguruan emandako pausoen kronologia egin nahi izan dugu, hasieratik gaur arte.

1.- Urdiaingo industrialdearen inguruko lehenengo berria garai hartan kontseilaria zen Balduzek eman zigun, duela 20 urte baino gehiago.

**2.- Otsailaren 20ko 4/1991 Foru Legea, Urdiain-Altsasuko eremua mugatzeari buruzkoa, lurzatiak edo lurzatieta dauden eraikinen salerosketa eta trukeetan erosi eta atzera eskuratzeko eskubideetarako.**

1991ko martxoaren 1eko bilkuran eman zen horren berri.

1. artikulua ezartzen du Urdiaingo Udalaren 2. poligonoko lurra eremua mugapena zein den eta lurzatiek duten zenbakia.

2. artikulua: Lurzatiak edo lurzatieta dauden eraikinen salerosketa eta trukeetan lehentasunez erosi eta atzera eskuratzeko eskubideak Nafarroako Foru Komunitatearen aldekoa edota, hala badagokio, dagokion Udalaren aldekoa izan behar du.

3. artikulua, 2. paragrafoa: Foru Legeak ezartzen du mugatutako eremuetan dauden lurzatiak industriarako eta/edo ekipamenduetarako direla.

**3.- Urte askotan ez zen gaiari buruz gehiagorik hitz egin. Ezegonkortasun handia zegoen urte haietan Nafarroako Gobernuan (tripartitoa, dimisioak...).**

**4.- 1996ko urriaren 7an, Nafarroako Gobernuak baimena eman zion Industria Departamentuko kontseilariari lanak kontratatu zitzaizkion hainbat industrialde martxan jartzeko, horien artean Urdiain-Altsasukoa.**

**5.- 1999ko maiatzaren 3an, Nafarroako Gobernuak Urdiain-Altsasuko industri eremua eskualdeko industrialde deklaratu zuen.** Udalak 1999ko abuztuaren 5eko Osoko Bilkura izan zuen erabakiaren berri.

Hona hemen eskualdeko industrialdeen gainean Gobernuak ezarritako lege arauak:

84/1990 Foro Dekretuaren 1. artikulua:

*"Gobernuak du eskualdeko industrialdeak sustatzeko ardura. Izan ere, industrialdeen kokapena eta egiteko edo ez hartzen den erabakia lurraldearen antolamenduaren gaineko politikari lotutako erabakiak dira eta instalazio hauek dituzten berezko ezaugarriengatik eta dakartzaten ondorioengatik udalen eskumenen gainetik daude".*

**6.- 2001eko uztailaren 2an Urdiaingo industrialdea udalez gaindikoa Plan Sektorial deklaratu onetsi eta jendaurrean jartzeko eta Urdiaingo eta Altsasuko udalei entzuteko hilabeteko epea ezartzea erabaki zen.**

UPSk ezartzen zuen industrialdeak ukitutako lurak desjabetze bidez eskuratuko zirela. 40 alegazio jaso ziren, udal, elkarte, partikular, etabarrek aurkeztutakoak. Udalak bi idazki aurkeztu zituen. Deigarria da oso Udalak aurkeztutako alegazio horiek eta eskualdeko zenbait udalek (Ziordi, Bakaiku, Iturmendi eta Arbizu) zein Sakanako Mankomunitateak berak garai berean aurkeztutakoak hain antzekoak izatea. Begibistan dago ados zeudela Urdiain-Altsasuko industrialdearen aurka egiteko.

Argigarria da, halaber, Arbizuko Udalak egindako alegazioa. Bertan, Urdiainen gastatu behar zen dirua Arbizuri emateko eskatzen zion Gobernuari Arbizuko industrialdea egiteko.

Udalak, bestalde, bidea eman zien bertan lurak zituzten 69 jaberren eskaerei, non desjabetu behar ziren lurren balorazioa berrikusteko eskatzen zuten.

**7.- Urdiain-Altsasuko industrialdearen inguruko proiektuaz hitz egiteko bilera bat egin zen Industria Departamentuko kontseilariarekin eta departamentu bereko beste hainbat ordezkariarekin eta horren berri eman zen 2004ko ekainaren 10ean egindako bilkuran.**

Ez dago bileran esandakoa edota hitz egindakoa jasotzen duen idazkirik (haiek jakingo dute zergatik).

**8.- Nafarroako Parlamentuak, 2005eko apirilaren 21ean eginiko bilkuran, "Nafarroako Gobernuari Barrankan industri lurzorua sustatzeko eskatzeari buruzko mozioa" eztabaidatu eta bozkatu zen eta aho batez onetsi zen... Parlamentua osatzen zuten talde guztiek Urdiain-Altsasuko industrialdea izan zuten hizpide nagusia eta guztiek industrialdea lehentasunezko, premiazko eta estrategikoki beharrezko azpiegitura zela adierazi zuten. Horrela, parlamentari guztiek, industrialdearen alde agertzeaz gain, premiazko azpiegituratzat jo zuten.**

**9.- 2006ko otsailaren 13an, Kultura Departamentuko zuzendari nagusiak onetsi zuen industrialdeak ukitutako lurzatietan esku-hartze arkeologikoa egitea.**

Udalak administrazioarekiko auzi-errekurtoa jarri zuen ebazpenaren aurka. Hala ere, urte horretan bertan, abenduan, errekurtoa bertan behera uztea erabaki zuen. Ikerketaren arabera, Urdiaingo industrialdeak ez luke eragingo bertako ondare arkeologikoan. Udalbatza jakinaren gainean geratu zen 2006ko martxoaren 17ko bilkuran.

**10.- Ingurumen zuzendari nagusiak 2006ko abenduaren 27an emandako ebazpenaz, jendaurrean jarri zen Urdiain-Altsasuko industrialdearen proiektuak ingurumenaren gainean izango dituen Ondorioen Azterlana, Udalez gaindiko Plan Sektorialaren dokumentazioarekin batera.**

**Dokumentazio guztia berrogeita hamabost egunez egon zen jendaurrean. 13 idazki aurkeztu ziren.**

**Ebazpena 2007ko urtarrilaren 8ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.**

**Proiektua jendaurrean jartzen zen bigarren aldia izanik, pentsatzekoa da jende guztia jakinaren gainean zegoela, nahiz eta batzuek orain proiektuaz ezer ez zekitela esaten duten.**

**11.- Urdiaingo alkateak alegazioen idazkia aurkeztu zuen. Idazkia 2007ko martxoaren 19ko Osoko Bilkurak berretsi zuen eta ur baliabideen eta ondasun historikoaren inguruko alegazioen beste idazki bat igortzea erabaki zuen.**

**Goiko lerroetan aurreko legealdietan egindako izapideei buruzko informazioa jaso dugu. Argi utzi nahi dugu proiektua jendaurrean jartzeko egindako izapide guztiak egin zirela oraingo Udalbatza sartu baino lehen.**

Oraingo Udala 2007ko ekainaren erdialdean osatu zen, maiatzeko hauteskunderen ondoren.

**12.- 2007ko irailaren 6ko bilkuran alkateak aurreko legealdiko alkate Agirreri galdetu zion Udalak proiektuaren aurka aurkeztutako alegazioen idazkiaz, udaletxean ez zegoelako. Agirrek erantzun zion hitz egingo zuela idazkia prestatu zuen abokatuarekin edota idazkia Gobernuan aurkeztu zuten batzordekideekin. Handik egun batzuetara ekarri zuen udaletxera.**

**13.- 2008ko urtarrilaren 10ean egindako bilkuran Udalak Industria Departamentuari bidalitako idazkiaren berri eman zitzaion Osoko Bilkurari. Idazkian, NABAI taldea proiektuarekin bat zetorrela adierazteaz gain, hirigintzaren ikuspuntutik kontuan hartzeko hainbat proposamen egiten ziren sarbideak hobetzeko xedearekin. Halaber, industrialdeko zenbait lurren doako lagapenak aipatzen ziren Udalaren erabilpenetarako.**

*Hona idazkiak zioena: "Gure ustez, industrialdearen proiektua herriarentzat ez ezik, eskualde osoarentzat ere izango da onuragarria. Izan ere, herritar askok urteetan desiratu duten industrialdea jarriko da abian hari esker eta uste osoa dugu industrialdeak bertako ekonomiari bultzada emango diola eta gure herrien bizi-kalitatea hobetuko duela".*

Doako lagapen inguruko hirigintza-proposamenak NASUINSarekin batera aztertzen ari dira. Sarbideetako baldintzak, berriz, Obra Publikoen Departamentuak onetsi zituen, bai Iturmendi aldekoak, baita Altsasu aldekoak ere.

**14.- Nafarroako Gobernuak 2008ko maiatzaren 19an hartutako erabakien bidez behin betikoz onetsi zuen Urdiain-Altsasuko industrialdearen Udalez gaindiko Plan Sektoriala. Onespen-erabakia 2008ko ekainaren 18ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.**

2008ko uztailaren 10eko Udal bilkuran, proiektuaren behin betiko onespeneren berri eman zen, bertan zinegotzi guztiak zeudela.

Behin betiko onespeneren aurretik egindako izapide guztiak aurreko legealdietan egin ziren. Zer dela eta leporatzen digute guri isilpean aritu izanaz, guzti-guztia beren erara egin dutenean? Beraiek egindako guztia dioten bezain argia ote den aztertu beharko zen; izan ere, erantzun gabe utzi dituzten hainbat galdera daude airean.

**15.- 2008ko urriaren 2ko bilkuran, eta bertan zinegotzi guztiak egonda, NASUINSA enpresak Udalari bidalitako dokumentazioaren berri eman zitzaion Udalbatzari. Dokumentazioak industrialdea urbanizatzeko hainbat proiekturen ingurukoa zen. Horretaz gain, alkateak Industria kontseilariak Urdiaingo eta Altsasuko udaletara egindako bisitaren berri eman zuen. Kontseilariak bisita hartan 2009ko hasieran desjabetze izapideei hasiera eman eta ondoren lanei ekingo zitzaiela adierazi zuen. Denak jakinaren gainean geratu ziren.**

**16.- 2009ko urtarrilaren 20an, Ohiana Gallo eta Luziano Agirre zinegotziek aparteko bilkurarako deia egiteko eskatu zioten alkateari, bileran beraiek aurkeztutako mozioa aztertzeko. Hona hemen, laburtuta, mozioak eskatzen zuena:** *"Nafarroako Gobernuari proiektuaren gaineko moratoria eskatzea, herritarrek proiektua aztertu, eztabaidatu eta haren gaineko alegazioak egiteko denbora izan dezaten"* Bilkura 2009ko otsailaren 5ean egin zen, eta zeresan handia eman zuen mintzeko eta manipulatzeko asmoz Udalaren aurka esandako irain eta gezurrengatik. Jasan behar izan genuena! Aukeraz baliatuta, Agirre zinegotziak manifestu "sasi-politiko" pertsonala irakurri zuen eta inork eskatu ez zizkion azalpenak eman zituen (zehaztugabetasun dextenterekin, gainera). Horren aurrean, nik zera erantzungo nioke: "Zerorren burua zuritzea, zikina zaren seinalea"

Orain denbora gehiago eskatzen dute proiektua eztabaidatu ahal izateko. Orain? Jendaurrean egon ondoren eta egokitzat jo dituzten alegazio guztiak aurkeztu ondoren? Informazio gehiago behar bazuten, momentu egokian eskatzea zuten. Jada beranduegi da horretarako. Bestalde, honako galdera hauek bururatzen zaizkigu: Egindako alegazioak lurren jabeen interesen ikuspuntutik egin al ziren ala beste interes batzuek bultzatuta egin ziren? Proiektuaren inguruko informazioa eman al zieten lurren jabeek alegazioak egiteko epearen barruan? Orain, guri eskatzen digute informazioa emateko, horretarako aukerarik ez dagoenean. Aurpegia behar da gero! Aurreko lerroetan Urdiaingo industrialdearen prozesuaren kronologia egin eta gaiaren inguruan udaletxean jasota dagoen informazioaren berri eman izan dugu.

## ONDORIOAK ETA BALORAZIO POLITIKOAK

Argi dago industrialdearen proiektua bi alditan egon dela jendaurrean. Herritarrek proiektuaren inguruko informazioa eskuratzeko aukera izan dute, beraz. Hala ere, proiektua jendaurrean jarri den bi alditan gu ez geunden udaletxean eta orain guri leporatzen digute informazioa ezkutatu izana eta isilpean aritu izana. Aurpegia behar da!

2001. urtean, proiektua jendaurrean jarri zenean, desjabetu behar ziren lurren 69 jabeke prezioa igotzeko eskatu zuten. Zalantzarik ez dago lurren jabeek proiektuaren berri bazutela eta desjabetze bidez egingo zela bazekitela.

Proiektua jendaurrean jarri den bi alditan alegazioak honako hauek aurkeztu zituzten: Urdiaingo Udala, Sakanako beste udal batzuk, Mankomunitatea, beste eragile batzuk eta baita partikular batzuk ere. Argi dago, beraz, jendeak bazuela proiektuaren inguruko informazioa.

Nafarroako Gobernuak denei erantzun zien.

Zertara dator zalaparta hau guztia? Zer dago iskanbila honen atzetik? Nor dago honen guztiaren atzetik? Nori interesatzen zaio? Zerbait ezkutatu nahi al dute? Agian, erasorik onena defendatzea dela uste dutelako jokatzeko dute horrela. Beraiek jakingo dute, baina mesede eskasa egiten diote herriari.

Ulertzekoa da ezaugarri hauek dituen industrialde batek aldeko eta kontrako asko izatea. Are gehiago, kontuan hartzen badugu proiektua ez dela Udalarena, baizik eta Foru Komunitate osoarentzat den industria antolamenduko plan estrategiko baten barruan dagoen proiektua. Baina, zalantzarik gabe, industrialdeari esker lanpostuak sortuko dira herrian eta, gainera, Udalak hainbat diru-sarrera izango ditu. Hona, besteak beste, industrialdeak ekarriko dituen onura ekonomikoak: obra baimenak, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga, enpresak, etxebizitzak eraikitzea, merkataritza, zeharkako inbertsioak, jarduera ekonomiko handiagoa, tabernak, jatetxeak, gas kontsumoaren %1,5, enpresetan matrikulaturiko

ibilgailuen gaineko zerga, industrialdearen eraikigarritasunaren %10 (38.000 metro koadro inguru Udalaren esku geratuko lirateke erabilpenetarako). Lanpostua gertu izateak eta industrialdera garraio publikoan joateko aukerak norberaren ibilgailua gutxiagotan erabiltzea ekarriko du eta, ondorioz, CO2 jaulkipenak murriztuko dira.

Horretarako, jakina, hainbat lur okupatu beharko dira, alegia, jabea duten lur batzuk desjabetu beharko dira guztion mesedetan, eta horrek desadostasunak ekartzen ditu beti. Nolanahi ere, kalte hori arintzeko, lurrak ahalik eta prezio onenean saltzea eta jabe horiek pozik geratzea lortu nahi du Udalak. Horretan ahalegintzen ari gara eta uste dugu azkenean akordio batera iritsiko garela.

Guk argi dugu historikoki proposamen guztien aurka agertu diren taldeek nahasmen-egoera hau aprobeztatu nahi dutela probetxua ateratzeko. Oso estrategia ezaguna da eta, beraz, ez gaitu harritu behar Udal kudeaketaren arduradunen ahultze politikoa haien helburu izatea. Begibistan dagoena da batzuek ez dituztela oraindik hauteskundeetako emaitzak onartu.

Gurpil honetan sartuta gaude. Hartu ala utzi egingo dugu. Baina, bizi garen bezala bizitzeko industria behar dugu; industriaren aldeko apustua egin da aspaldidanik. Industrializatu gabeko herriak begiratzea eta konparatzea besterik ez dugu egin behar. Zalantzarik gabe den-dena eztabaidatu daiteke, baina, ez dago sistema ekonomikorik zeinetan ez den beharrezkoa lan egitea eta kapitala izatea. Sistema ekonomiko horrek hainbat aldagai izan ditzake, baina nahi dugun bezala bizitzeko, erosotasun guztiekin eta guztiok desiratzen dugun ongizate gizarteak eskaintzen dituen abantailekin, lan egitea eta kapitala izatea ezinbestekoak dira. Teorian gizarte idealizatua desideratzea egokia eta pozgarria da, baina horrek ez digu jaten emango. Ideia horiek aproposak dira mahai baten inguruan edota tabernan hitz egiteko. Hala ere, errealitatea oso bestelakoa da.

Herritar guztien esanetara gaude (baita etengabe oztopoak jartzen dizkiguten esanetara ere). Prest gaude gure laguntza eta bitartekotza eskatzen diguten guztiei eskaintzeko eta ez dugu etsiko Urdiango herriarentzat baldintzarik onenak lortu arte.

Agur bero bat guztiontzat.

ALKATEA: Miguel Angel Zubiria

Zinegotzi: Eduardo Olaiz

“ Jaione Zubiria

“ Ana Belen Zubiria

“ Pello Senosiain